

Argitalpen honek 2008ko urriaren 23an Gasteizen **Terrorismoaren biktimen agerikotasuna, gizartean eta politikan** izenburupean egin zen *Fernando Buesa Blanco Fundazioa / Aldaketa-Cambio por Euskadi-ren III. Topaketak* jardunaldiaren edukiak biltzen ditu.

Bi erakundeen artean Gasteizen 2005. urtean¹ sinatutako *Lankidetzarako hitzarmen-markoaren* ondorioz sortutako hirugarren argitalpena da hau. Lehenengoa, elkarlan honi hasiera eman ziona, **Terrorismoaren biktimen esanahi politikoa: Zuzenbidezko Estatuaren eta hiritarren balioa** izeneko lana izan zen, eta bertan *I. Topaketetan* (2005)² parte hartu zutenen txostenak biltzen dira. Ekimen honek jarraipena izan zuen *II. Topaketetan, Argi-itzalak ETA politiko-militarra desegitean* (2006)³ gaiari buruzko gogoetarekin.

PARTAIDEAK, IKUSPEGIAK ETA ARGITALPEN-TRATAMENDUA

Partaideak. *III. Topaketa* hauetako parte-hartzaile eta gonbidatuak ETArek terrorismoaren biktimen ikuspenaren gaiari ikuspegi politiko-sozial batetik heltzeko elkartu ziren. Biktimen

¹ **Hitzarmena Fundazioa / Aldaketa.** *Lankidetzarako hitzarmen-markoa* 2005eko urriaren 25ean sinatu zuten Fernando Buesa Blanco Fundazioaren presidentek, **Natividad Rodriguezek**, eta Aldaketa hiritarren plataformaren presidentek, **Joseba Arregik**. Bere edukia argitalpen honen **5. Eranskinean** ikus daiteke. **Editoreen oharra.** [Edit. oharra].

onarpenaren prozesu honetan –egiazkoa zein sinbolikoa– izan den garapena ezagutu nahi izan zen, baita lan saiatu honetan geratzen den bidea identifikatu ere.

Aurkezpena. Ekitaldietako aurkezle eta gidari modura, jardunaldia **Jesus Loza**, Fundazioko presidenteordeak, eta **Joseba Arregi**, Aldaketako presidenteak hasi zuten. Argitalpen honetako lehen atalean agertzen dira euren aurkezpen-mintzaldiak.

Bigarren atala. Garapen zabalagoa duten txostenei gordetakoa da eta hauek ere aurkezleen beraien kontura izan ziren. Lehenbizikoa, J. Arregirena: ***Biktimen sarrera bizitza publikoan***, arazoa ikuspuntu orokor batekin aztertu zuen. Jarraian, J. Lozak garaturikoa: ***Politika ETAre biktimen aurrean***. Biktimek jasandako bilakaera eta bere ikusgaitasun politiko-instituzionala aztertu zuen, aipamen berezia eginez Eusko Legebiltzarreko

² ***I. Topaketak. I. Topaketak: Terrorismoaren biktimen esanahi politikoa: Zuzenbidezko Estatuaren eta hiritarren balioa***, Bilbon izan ziren 2005eko urriaren 28an. Jardunaldiko mintzaldiak HH.AA.n (2006) daude bildurik. **Edit. oharra.**

³ ***II. Topaketak. II. Topaketak: Argi-itzalak ETA politiko-militarra desegitean***, Donostian egin ziren 2006ko urriaren 28an. Jardunaldian esandakoa HH.AA.n (2007) ikus daiteke. **Edit. oharra.**

«*Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko*»
legeari (4/2008 Legea, ekainaren 19koa).

Haserako txostenen ondoren, **lehenengo Mahai-ingurua** egin zen: ***Terrorismoaren biktimen ibilbide luzea, bere ezkutasunetik onarpenera***, eta bertan hiru gonbidatuk parte hartu zuten, ETaren terrorismoaren biktimen senide eta biktimen duintasunarekin konpromezua duten erakundeen sustatzaile modura: **Ana Maria Vidal-Abarca**, Terrorismoaren Biktimen Fundazioko presidente ohia; **Cristina Cuesta**, Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarteko (COVITE) presidentea, eta **Natividad Rodriguez**, Fernando Buesa Blanco Fundazioko presidentea. Epe zabal batean (1980-2000) hedatzen den testigantza pertsonalen balioari, biktimen ikusgaitasunari eta ETaren amaierari buruzko euren iritziak gehitu behar zaizkio.

Hirugarren atala. Bigarren Mahai-ingurua burutu zen ***Politika ETaren biktimen aurrean*** izenburupean, eta 2008an bost euskal alderdi politikoen ordezkari izan zuen: parte hartu zuten ordenaren arabera, **Nerea Galvez**, Arabako Batzar

Nagusietako EB-Berdeak/Aralar taldearen batzarkidea; eta Eusko Legibiltzarreko kideak, **Rafael Larreina** (EA), **Carlos Urquijo** (PP), **Rodolfo Ares** (PSE-EE) eta **Gema Gonzalez de Txabbarri** (EAJ-PNV).

Ondoren, gonbidatuen eta publikoaren arteko azalpen indibidualak eragin zituen eztabaida izan zen. Iritzien trukatzeko honen moderatzaile **Faustino Lopez de Foronda**, Arartekoaren Bulegoko idazkari nagusia eta Fernando Buesa Blanco Fundazioko Patronatuko kidea izan zen.

Argitalpen-tratamendua

Argitalpen honek *III. Topaketetako* parte-hartzaile guztien hitzaldiak biltzen ditu bere irakurketarako, eurek aurkeztutakoaren transkripzioetan oinarrituz. Argitalpen lana, hitzaldiak testu idatziaren izaerara egokitzen saiatu da (egileen lankidetzarekin), baina jatorrian zuten ahozko izaera baztertu gabe.

Argitalpena hainbat **Eranskin dokumentalek** osatu eta isten dute. Aurreko zenbakietan argiratutako ohikoekin batera (*III. Topaketen* Programa eta Fundazioa eta Aldaketaren arteko *Lankidetzaren hitzarmena*), beste lau aurkezten dira ETArekin biktimen ikusgaitasunaren testuingurua azaltzeko helburuarekin, bai eguneroko Prentsan, aldizkari ofizialetan, bibliografia berezitan eta dokumentaletan, euren testigantza

pertsonalen⁴ hedapenaren bidez terrorismoaren biktimen –zuzenak zein ez-zuzenak– ezagutza eta oroimenerako funtsezko genero modura.

Lan honen lehenengo eranskina esanguratsua da: **Hemeroteka**. **Jesus Velasco** (1980.01.10), **Enrique Cuesta** (1982.03.26) eta **Fernando Buesaren** (2000.02.22) bizitzarekin amaitu zuten ETaren atentatuek zazpi egunkarietan izan zuten hedapenaren adibide labur bat da, hauen zuzeneko senitartekoek parte hartu bait zuten lehenengo Mahai-inguruan.

22 | 23

Amaitzeko, hitzaldien edukiak kontutan hartuz, argitalpen taldea *Topaketa* hauetan landu diren gaiak aberasten saiatu da edizio oharrekin (azalpenezkoak, bibliografikoak, periodistikoak edo araugintzazkoak), eta partaide bakoitzaren profil laburrak gehitu ditu. Era berean, sigla eta akronimoen zerrenda eta aurkibide onomastikoa aurkezten dira, azken hau, aurkezpen, hitzaldi Mahai-inguruetan eta 1. eranskinean (Hemeroteka) aipatutako pertsonen, erakundeen edo entitateen bilaketa errazteko.

⁴ **Fernando Buesa eta bere hitzaldia biktimei buruz.** F. Buesak terrorismoaren biktimei buruz egin zuen hitzaldia Fundazioko aldizkariaren orrialdeetan aurki daiteke: Fernando BUESA (2004: 353-356): «Víctimas del terrorismo y reconciliación. Una muestra de algunas intervenciones de Fernando Buesa [Parlamento Vasco y Juntas Generales de Álava, 1998-2000]», *El Valor de la Palabra. Hitzaren Balioa*, 4. zk. **Edit. oharra.**

**BIKTIMEN IKUSGAITASUNAREN INGURUAN:
HASERAKO HAUSNARKETA**

Terrorismoaren biktimen ikusgaitasun sozial eta politikoa eta horren esanahi politikoa

Terrorismoaren biktimen ikusgaitasun sozial eta politikoa oraindik gairik gabeko arazoa da, nahiz eta, zorionez, arlo horretan ere ikusten ari diren aurrerapen batzuk.

Terrorismoaren biktimak euskal gizarteko bizitza sozial, politikoa eta kulturean txertatzeko lana ez da izan, eta ez da izango ere, lan erraza. Anitz urtez agintariak ezkutatu egin dute biktimen errealitatea, eta euskal gizarteak berak ere lanak ditu onartzeko biktimen aldera izan duen jokabidea.

Orain, biktimak finean ikusgai bihurtu direnean eta haien errealitatea jadanik ezkutatu ezina bihurtu denean, eginahalean saiatu behar gara inork ez dezan ezeztatu biktimen esanahi politikoa.

Biktimak euskal gizartearen aurrean ikusgai bihurtzeko langintza horretan, biktimen senitartekoak izan dira aitzindari eta langile porrokatuenak, eta euren behar die bihurtu

euskal gizarteak bere eskerrona egin duten ahaleginagatik. Beren erakundeak sortuz eta euretan lan eginez, biktimak erreferentzia saihestezina bihurtu dira euskal gizarte eta politikarentzat.

Biktimak ikusgaitzeko prozesu horren harian gizarte erakundeek gune batzuk sortu dituzte, biktimei zor zaien oroimen, errespetu eta esanahi politikoaren aitortzak dagokion pisua har dezan gizartearen baitan eta aintzat hartua izan dadin iritzi publikoaren aldetik. Asmo horrekin, biktimen senide elkarteek foroak sortu dituzte hiritarrek beren iritzia eman dezaten gai horretaz.

Biktimen oroimen eta errespetuaren aldeko bataila asko jadanik irabazita ditugun une honetan, borrokatzeko dago oraindik bataila erabakigarriena, hots, biktimen esanahi politikoa behin betiko finkatzeko bataila. Hiritar indibidualek

ez eze, biktimen senideek ere hitza hartu behar dute eta bete beren funtsezko zeregina: biktimen alderako errespetua eta gizartearen eta erakunde publikoen ezagutza eskatu, eta eraildako biktimen esanahi politikoaren bozeramale bilakatu.

Gizarteak eta erakunde publikoek biktimen senideen aldera egiten dituzten ahalegin guztiek ez dute zentzurik izango, baldin eta euren bitartez ezkutu bat eraiki nahi bada zeinen atzean ezkutatu biktimen senide izatera eraman zituen arrazoa, hau da, erailak izan ziren haiek erailak izatera eraman zituen asmo politikoa, hildakoen senideak biktimen senide bilakarazi zituena.

Biktimen –eraildako biktimen nola haien senideen– ikusgaitze prozesuak aurrera jarraitu behar du. Beharrezkoa da ez bakarrik biktimen senideez hitz egiten jarraitzea, baina baita ere senideek eurek har dezatela hitza, azaldu dezaten beren egoera, bizi izan dutena, eraildakoak eta haien esanahi

politikoa gardentzeko beren gain hartua duten eginbidea, era horretan euskal gizartearen eta bere azken urteotako historiaren ezagutza etiko poxi bat emateko zeinetan oinarriturik eraiki Euskadiko etorkizuna.

Zeren biktimen ikusgaitasuna esaten dugunean erailen esanahi politikoaren ikusgaitasuna esaten ari baikara, eta ikusgaitasun hori instituzionalizatuta geratu behar da euskal gizartearen etorkizuna zehazterakoan: biktimen senideak bakarrik itzuli ahal izango dira beren esparru pribatura, ziurtatzen zaienean euskal gizartearen etorkizun politikoa moldatzean eraildako biktimen esanahi politikoaren oroimena eta errespetua hartzen dela abiapuntutzat. Eta esanahi politiko hori hauxe baizik ez da: haien erailketaren arrazoia izan zen proiektua ez dela zilegi.

26 | 27

Alderdi politikoek ez dute nahikoa biktimen senideen alderako hurbiltasuna –zinezkoa nahiz alegiazkoa– adierazte hutsarekin. Behar dute oraindik ere iritsi, hurbiltasun horren medioz, eraildako biktima bakoitzaren baitan suz eta odolez –literalki– markatua dagoen funtsezko galderara: zilegi al da pertsona hori hilarazi zuen proiektua? ■

Argitalpen taldea